

Filmeak eta eskanerria

Virtuosity fil mean, etxe orratz batean Denzel Washington eta etsaiaren arteko borroka ikustean, ez pen-tsa protagonistak edo ordezkoko benetan ari direnik, eszena ordenadorean eraiki da. Hollywoodek, laser bidezko eskaneatze-sistemak baliatuz, filmeko bost aktore nagusien orde-zko elektronikoko erre-produzitu ditu.



Erreproduzio elektronikoa bostehun eta hamabi zatiz osatua dago eta zati bakoitzak laurehun eta berrogeita hamar informazio-puntu ditu. Lan itzela, baina errentagarria dirudienez.

Horretarako, ehun mikro-watt-eko laser izpiak hama-zazpi segundo behar izan zituen D. Washington, protagonista, eskaneatzeko. Lehen kamera batek, aktorearen profila arakatu zuen eta bigarrenak, bere azalaren ehundura eta begi kolorearen zehaztasunak. Erre-produkzio elektronikoa bostehun eta hamabi zatiz osatua dago eta zati bakoitzak laurehun eta berrogeita hamar informazio-puntu ditu. Lan itzela, baina errentagarria dirudienez.

Sistema hau ez da zinema-
ra mugatu, jadanik beste
zenbait arlotan ere aplika-
tu baitute teknika bera,
medikuntzan eta aeroes-
pazioan esaterako.

Ikusi eta entzun, dena batera

Laster izango dugu soinu, testu eta irudiak aldi berean tele fono-hari bakarretik igorri edo jasotzeko aukera. Orain arte bi telefono-hari desberdin erabili behar izan dira elkarrizketa izan eta testu-irudiak jasotzeko, baina hori berehala aldatuko da. Injeneru elektronikoak Munich-en elkartu ziren Nazioarteko Telekomunikazio Elkarteke ordezkarietara teknologia berriari azken ukituk emateko. "Aldibereko Soinu eta Data Digitala" izeneko moderm berri honi esker, bi erabiltzaileek beren ordenadore-pantailan testuak eta irudiak agertzen diren heinean hitz egin ahal izango dute.


"Aldibereko Soinu eta Data Digitala" izeneko moderm berri honi esker, bi erabiltzaileek beren ordenadore-pantailan testuak eta irudiak agertzen diren heinean hitz egin ahal izango dute.



Hori guztia posible izan dadin, bi berrikuntza egin dira. Batetik, telefono-mezu analogikoa seinale digital bihurtu eta konprimatu egin da eta bestetik, moderm berriak orain artekoek baino abiadura handiagoan igorri ahal izango du ordenadore-mezua. ASDD modermak ahozko seinale digitalizatua eta ordenadore-mezua bi pakete bereizietan igorriko du: bi seinaleak hartzailearen ASDDra heltezen, kode analogikora bihurtuko dira, ahotsa telefonoz eta testu-irudiak ordenadorean jasoko ditugularik.

Urazpitik elkartuta

Orain arte kontinenteen arteko komunikaziorako sistemarik hobereena satelitea izan badugu ere, fibra optikoko kable berriei esker, lehen baino hamar aldiz kanal gehiago erabili ahal izango da. Gainera, kablezko loturek espazioko igorketetan gertatzen diren atzerapenak saihesten dituztela ez da ahaztu behar.



Siberia Estatu Batuekin kable optiko bidez lotzeko asmoa du Errusiako Posta eta Telekomunikazio Ministeritzak.

Abantaila horiek direla eta, Siberia Estatu Batuekin kable optiko bidez lotzeko asmoa du Errusiako Posta eta Telekomunikazio Ministeritzak. Siberiako Murmansk eta Alaskako Port Barrow lotu nahi dituzte hain zuzen ere. Bie arteko distantzia 4.350 kilometrokoa da eta lehen begiratuan Aleutian Irlak zeharkatuz motzagoa eta askoz merkeagoa dela ikusi arren, alde batera utzi dute aukera hori. Horren arrazoi nagusia, lotura Europako iparraldearekin egin nahi izatea izan da.

Egin den aukera gauzatzeko berriz, urpekuntzi nuklear bat erabili beharko dute. Horretaz baliatuz 2,5 cm-ko diametroa duen kable optikoa bi bobina erraldioetan bildurik honddoratu dute, ondoren urazpian luzatzeko. Denbora igaro ahala, konponketak ere egin beharko direla aurrikusi dute eta badakite urazpian kable optikora heltzeko zailtasunak izango dituztela. Baina, jakin badakite berezko matxurez gain arrantzaren edo untzien joan-etorrien ondorioz ere gerta daitezkeela eta horiei, beldur gehiago dute.